



ALKATETZAKO DEKRETUA 174/2017 zk.

Plentziako toponimiaren agiriak bildu eta inbentariatzeko bekaren deialdia eta oinarriak.

Akordio honen bidez onartzen dira Plentziako toponimiaren agiriak bildu eta inbentariatzeko beka bat emateko oinarriak, eta beronen deialdia. Posible da beka horrek jarraipena izatea antzeko beste batekin, zeinaren helburua izango baita inbentario hori osatzea ahozko edukiak bilduz, eta bildutako guztia arautu eta aztertzea, Plentziaren toponimia ahalik eta osoena izan dadin.

Plentzian, 2017ko apirilaren 26an.- Jarduneko alkatea.- Haizea Agiriano Elosegi.

PLENTZIAKO TOPOMINIAREN AGIRIAK BILDU ETA INBENTARIATZEKO BEKAREN DEIALDIA

Kontuan izanik, Espainiako 1978ko Konstituzioaren 3. atalak dioela Espainiako hizkuntza-berastasuna kultur ondarea dela eta babesa eta errespetua zor zaiola.

Kontuan izanik, 2003ko urrian Parisen sinatutako Ondare Ez-materiala Gordetzeko Itunak 2.2 artikuluan dioela ondare horren parte direla mota guztietako ahozko tradizio eta adierazpenak, baita ere hizkuntza, horien transmisio-bide gisa.

Kontuan izanik, nolako ahalegina egiten ari den Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa euskararen erabilpena normalizatzeko.

Kontuan izanik, hizkuntza normalizatzeko helburu berberari jarraiki, Euskaltzaindiaren lanetako bat dela euskal toponimia jasotzea eta finkatzea.

Kontuan izanik, ez dela egin oraindik Plentziako toponimiaren inbentario sistematikorik, eta, gure ondarearen zati garrantzitsua izaki, komenigarria litzatekeela ondare hori bildu eta aztertzea, toki, baserri, mendi eta abarren izenak desagertu baino lehen. Udal honek beka deialdia egin du, oinarri hauen arabera:

1. BEKAREN EZAUGARRIAK

1.1. Bekaren xedea: Beka honen xedea da idatzizko iturrietan -agirietan, mapetan, bibliografian, eta abarretan- agertzen den Plentziako toponimia jasotzea, sailkatzea eta kokatzea.



1.2. Zenbateko ekonomikoa: Beka 13.000 eurokoa izango da, eta hiru epetan kobratuko da: lehena, beka esleitzean eta beste biak, jarraipen batzordeen ostean (ikus 6.b. puntua).

1.3. Iraupena: 2018ko martxoaren 31n amaituko da lana gauzatzeko epea.

1.4. Beka hau ez da ikerketaren ordainsaria, baizik eta ikerketa hori egiteko laguntza.

1.5. Lana aurkezteko Euskaltzaindiak helburu horretarako inplementatutako datu-basea erabiliko da.

1.6. Lana Plentziako Udaleko Euskara zinegotziaren ardurapean egingo da, eta beti ere Euskaltzaindiak izendatutako zuzendari baten esanetara.

2. ESKATZAILEAK

Eskatzaileak, edo lantaldea bada gutxienez taldeko kide batek, egiaztatu beharko du badituela unibertsitateko ikasketak eta gai dela euskaraz komunikatzeko.

Beka eskaerarekin batera, orobat aurkeztu behar da «Plentziako toponimia dokumentalaren bilketa: iturriak eta metodologia» txosten-memoria euskaraz.

3. ESKAERAK

Interesatuak Plentziako Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dituzte eskaerak, dokumentu hauekin batera:

a) Unibertsitateko espediente akademiko osoa eta zehaztasun guztiak biltzen dituen, edo berorren kopia konpultsatua, bertan adieraziz egin diren ikasketak, lortutako kualifikazioak, eta datak. Lantaldea bada, kide bakoitzaren dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Eskatzaileak ez badu egiaztatzen badituela Euskal Filologiako ikasketa arautuak, posible du bestelako diplomak edo ziurtagiriak aurkeztea -balidin eta badauzka-, agiri horien bidez egiaztatzeko badituela euskarako ezagutzak, esperientzia profesionala edota egokitzat jotako bestelako ezagutzak.

b) Curriculum Vitae. Lantaldea bada, kide bakoitzaren curriculum vitae aurkeztu beharko da. Bertan adieraziko da nolako esperientzia daukan maila profesionalean eta ikerketetan, zein argitalpen atara dituen, zein beste hizkuntza dakien eta bekaren xederako aipagarritzat jotzen den beste edozein datu.

c) Txosten-memoria, ahalik eta modurik zehatzenean adieraziz nola ekingo zaion lanari. Besteak beste, gai hauek aipatu beharko dira:

— Ikerketaren faseak.

— Erabiliko den metodologia.

— Kontsultatuko diren iturriak.

— Erabiliko diren bitartekoak eta baliabideak.

d) Parte-hartzaile bakoitzaren nortasun agiriaren fotokopia.

Helbide honetara bidali behar dira eskaerak eta gainerako dokumentuak, eta ondoren erantsi nahi den dokumentazio guztia:



- Plentziako Udala.
- Erregistro Nagusia.
- Astillero Plaza, z/g.
- 48620 Plentzia.

Erreferentzia: Plentziako Toponimia Beka.

4. Dokumentazioa aurkezteko epea: eskaera, txosten-memoria eta gainerako dokumentuak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa da, arau hauek «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen diren egunetik kontaktzen hasita.

Eskatutako baldintzetakoren bat betetzen ez duten eskaerek edo dokumentuek 7 egun izango dituzte akatsak zuzentzeko edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko. Ez badituzte akatsak zuzentzen edo dokumentuak aurkezten, eskaera ukatu eta artxibatu egingo da, tramite gehiagorik gabe.

5. ESLEITZEKO PROZEDURA

Beka hau Plentziako Udalak emango du, horretarako sortutako Epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Epaimahaiak kide hauek izango ditu:

Epaimahaiko presidentea:

- Udaleko alkate-presidente jauna edo hark izendatutako ordezkaria.

Epaimahaiko kideak:

- Euskarako zinegotzi delegatua edo hark izendatutako ordezkaria.
- Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko ordezkari bat.
- Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko bi ordezkari.
- Plentziako Museoko Etnografia Batzordeko ordezkari bat.
- Alkateak izendatutako idazkaria.

Eskaerak aurkezteko epea itxi ondoren, epaimahaiak aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu, eta egoki iruditzen zaizkion eskatzaileak deituko ditu elkarrizketa batera.

Hona hemen baloraziorako baremo eta irizpideak:

- a) Txosten-memoria epaimahaiaren aurrean aurkeztea eta epaimahaikideek hari buruz egiten dizkieten galderari erantzutea: 0-30 puntu.
- b) Onomastikari buruzko ikasketa espezifikoa, ikastaroak, e.a.: 0-10 puntu.
- c) Esperientzia izatea onomastikarekin zuzenean lotutako gaietan: 0-10 puntu.
- d) Euskararen eta inguruko euskalkiaren ezagutza praktikoa: 0-10 puntu.



e) Eginak izatea Plentziari edo inguruko herriei (Leioa, Erandio, Berango, Sopela, Urduliz, Barrika, Lemoiz, Plentzia eta Getxo) buruzko lanak: 0-10 puntu.

f) Elkarrizketa: 0-10 puntu.

Erabakitzen bada eskatzaileetako batek ere ez dituela betetzen gutxieneko eskakizunak, Epaimahaiak eskumena izango du deialdia efekturik gabe uzteko. Gainera, Epaimahaiak gutxieneko eskakizunak betetzen dituzten hainbat ordezkoko izendatuko ditu, eta ordezkoko horiek beka eskuratuko dute, baldin eta hasierako bekadunek uko egiten badiote bekari edo hutsik geratzen bada beste edozein arrazoirengatik. Kasu horretan, ordezkoen hurrenkerari emango zaio lehentasuna.

6. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

a) Beka idatziz onartzea 7 eguneko epean.

b) Egindako lanen bi txosten edo memoria aurkeztea, lanaren garapena egiaztatzeko sortuko den jarraipen batzordearen aurrean: bata 2017aren amaieran, eta bestea, 2018ko lehen hiruhilekoa amaitzean.

c) Plentziako Udalari bidaltzea lanaren ohar, zirriborro, laburpen, aurrerapen eta emaitzak.

d) Aurreikusitako planean edo ikerketa taldean emandako aldaketa guztien berri ematea. Aldaketa guztiek izan beharko dute bekaren jarraipen batzordearen baimena.

e) Zorrotz betetzea zuzendaritzak lana garatzeko emandako gomendioak eta ezarritako prozedurak eta metodologia eta, betiere, Euskaltzaindiaren irizpideak errespetatzea.

f) Beka amaitzean txosten-memoria global bat aurkeztu beharko da, lanaren azken emaitzarekin batera.

g) Ez bada lana bukatu entregatzeko epea amaitzean, eta ez badago onartutako justifikaziorik, Udalak zigor bat ezarri ahal izango dio bekadunari. Dena den, Udalak epea luzatu dezake, uste badu badaudela atzerapena justifikatzen duten arrazoiak.

h) Beka hau bateraezina da beste edozein ikerketa-bekarekin edo lan-kontraturekin. Baldintza hori bete egin behar da beka eskatzean.

Ikerketak sor ditzakeen gastuak bekadunen kontura izango dira. Hala ere, Plentziako Udalak erraztasunak emango ditu berari dagozkion izapideak egiteko.

7. LANEN JABETZA

Lanen jabetza intelektuala egileena izango da. Halere, Plentziako Udalak beretzat gordeko du ikerketa osorik edo partzialki argitaratzeko eskubidea, eta, hala eginez gero, egileek uko egingo diote egile eskubideak jasotzeari.

Plentziako Udalak lana argitaratzea erabakiko balu, egileei jakinaraziko die, eta hiru urteko epean argitaratu beharko du. Ustiapen eskubideak Plentziako Udalarenak izango dira hiru urtez. Epe hori bukatutakoan, egileak askatasuna izango du lana argitaratzeko, betiere

PLENTZIA'KO URI-UDALA



AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA

BIZKAIA

jasotako beka aipatzen badu. Lehenago ere argitaratu ahal izango du, Plentziako Udalak uko egingo balio argitaratzeari.

Plentzian, 2017ko apirilaren 26an.

